

ZENBAT ETA GEHIAGO GOZATU, HANDIAGOA DA ALT XORRA

Maider Iantzi Goienetxe

Martxoan «inoizko Korrikarik handiena» atera zen bidera. Euskararenugarra piztuta eraman zuen Euskal Herriko bazter guztietara, baita atzerrira ere, kanpoan antolatu ziren 50 bat ekitaldirekin. Elkarlana eta auzolana ospatu, eta euskararen doakotasuna aldarrikatu zuen.

Zortzi hamarkada dira Otxandion lehen bonbak erori zirela, herri bat desagerrarazteko helburuarekin. Eta aurten, belaunaldi berriek, gelditzen diren sarraskiaren lekuko bakanekin batera, herri hura, herri hau, bizirik dagoela erakutsi dute. Luzaroan debekatutako hizkuntzan mintzatuz, gainera.

Martxoaren 30ean haur, gazte eta helduak atera ziren bidera Bizkaiko herri honetan. Mundura atera ziren, “Zirkorrika” abestiari jarraituz, hamaika egunez, gau eta egun, behin ere gelditu gabe, herriz herri ibiltzeko, inon parekorik ez duen ekitaldi ederrean. 2.535 kilometro zituzten aitzinetik; ez zen erronka makala horietan guztietan euskararenugarra piztuta eramatea, Tuteratik Bilbora eta Gasteiztik Maulera, baina lortu zuten eta helmugan, apirilaren 9an Iruñea beteta, AEKren balantzea ezin hobea izan zen.

«Elkarlana eta auzolana» goraipatu zituen Murtxe Mujika elkartearen koordinatzaileak. 20. edizio hau «batzeko Korrika» izan zela azpimarratu zuen. «Handiena» ez ezik, «aniztunena» ere izan zen, askotariko herritar, alderdi eta instituzioen parte hartzeari esker. Hain zuzen ere, “Batzuk” hartu zuen lelotzat, “bat” eta “zuk” hitzekin jolastuz. Hizkuntza, kultura eta mundu bat, oraindik euskaraz ez dakiten “zuk” horiei zuzendua. Aniztasuna, hitz batean.

Batzen jarraitzeko bideak erraztu behar direla aldarrikatu zuen Mujikak, eta horretarako beharrez-

kotzat jo zuen euskararen doakotasuna. Guztien artean «euskararen eredu berri bat» sortzeko garaia dela eta «adostasun berriak lortzeko abagunea» ikusten duela erran zuen. Horren erakusgarri gisa aipatu zituen Otxandioko hasiera, hiriburuetakoko alkateek batera egindako kilometroa, Iruñeko irudi masiboa, Nafarroa hegoaldean igarotako kilometroak eta Santiago zubian hainbat instituzioen artean «eraikitako zubi berriak».

IRUÑEKO ERAKUNDEAK, AURRENEKOZ ABEGITSU

Korrikak pasatzen den herri bakoitzean uzten ditu momentu bereziak, parte hartzen duen lagun bakoitzaren barrenean. Baina helmugako eguna ekarriko dugu hona, guztien bilgune delako,ugar sugarttikiz osatutako su handia, aitzinera segitzeko indarra.

20. edizio honetakoak aurrerapauso handiak ekarri zituen, lehen aldiz egin baitzioten Iruñean merezitako harrera. Nafarroako Gobernuak lekukoa hartu zuen, eta parlamentariak ere eraman zuten mezua, aldaketaren indar batetik bertzerara pasatuz. Lehenbizikoz, erakunde publikoetako ordezkariak herri kolektiboak eman zieten agur beroa. Hunkigarria izan zen orrialde haueta-

Irudi handian, Iruñeko Sarasate pasealekua, Korrikaren iritsieran. Lasterka egiteko tokirik ere ez zen egon halako jendetzarekin. Goian, Otxandioako abiatzea trapezistekin, eta behean, Joseba Asiron Iruñeko alkatearen eta Endika Lacuey Peñen Federazioko kidearen arteko besarkada estua.

Monika DEL VALLE - Idoia ZABALETA | ARGAZKI PRESS



ko irudi batean agertzen den unea, En-dika Lacuey Peñen Federazioko aurpe-gi ezagunenaren eta Joseba Asiron al-katearen arteko benetako besarkada.

Aldaketa itzela da eta hunkituta zeu-den batak eta bertzeak. Ainhoa Azna-rez Parlamentuko presidenteak, adibi-dez, ez zuen eguna bukatzerik nahi eta petoa jantzita zebilen Korrika bukatu eta gero ere. «Atzo Baiona eta gaur Ko-rrika. Zerbait aldatzen ari da onerako», adierazi zuen (oroitu behar da bezpe-ran ETaren armagabetzea egin zela, modu erabat berrian, Baiona bete zu-ten herritarren babesarekin).

BOZGORAILUETATIK, SARRIREN AHOTSA

Korrikaren helmuga, Sarasate paseale-kuan, jendez gainezka zegoen iritsi bai-no aunitzez lehenago. Azkenean, las-terka heldu zirenek eta zain zeudenek talde bakarra osatu zuten, milaka lagu-nekoa. Erdian irekitako pasillo meha-rretik, Xabi Gartzia Nafarroako AEK-ko arduraduna igo zen agertokira, lekuko-ari goian eraginez. Ireki egin zuen me-zuaren bila. Joseba Sarrionandiaren hi-tzak ziren.

Baina inork ez zituen irakurri. Ho-rrren orde, bere ihesaren kantan beza-la, bozgorailuetatik atera zen bere aho-

tsa. «Euskara, beste hizkuntzak bezala, altxor unibertsal bat da, denona dela-ko, agortzen ez delako eta dohainekoa delako», ohartarazi zuen. «Ez da agor-tzen erabiliz gero, gauza gehienak era-biliz gero bota behar izaten diren egu-netan (...) Lapur altxorra balitz bezala edukiko dugu zulo ilunen batean ezku-taturik? Konturatzen zara goizean ohe-tik jaikitzean ezti tanta gozo bat bezala senti dezakezula ezpainetan?». Euska-raren alde egitea oraindik normaltasu-

naren kontra egitea dela eta bizitza hizkuntzan ispilu batean bezala isla-tzen dela ere azaldu zuen.

«Hizkuntza kaltetua ispilu apurtua bezalakoa izaten da» zioten bertze me-zu sinboliko batekin, Foruen Monu-mentuan idatzitakoarekin, topo egin zuten Sarriren hitzek. Korrikak eraku-tsi zuen puskatutako ispiluaren piezak berriro elkartzen ari direla eta bertan euskararen herriak euskaldunago ikus-ten duela bere burua.

